



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN MUSEOAREN UKANDUNA, SL-K 2002-2005 ALDIAN GAUZATUTAKO DOLARREN EROSKETA-ERAGIKETEN FISKALIZAZIOA ETA LEGEZKOTASUNAREN ANALISIA” FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna, SLk 2002-2005 aldian gauzatutako dolarren erosketa-eragiketak aztertzen dituen txostena mamitu du. Txostena 2009ko ekainaren 11n onetsi du Osokoaren kideen gehiengoak data horretan euren egitekoen aribidean, nahiz kideetatik bik desadostasunezko boto partikularrak egin dituzten.

Honela, bada, eragiketen analisiaren oinarria izan da arrazionaltasuna aztertu, eraginkortasuna, Legeari meneratu eta kontularitzako printzipioetara egokitu izana.

Aldi honetan sozietateak 27,9 milioi dolar erosi zituen eta horietatik 17,8 milioi dibisen gaineko aukeren bitartez erosi ziren. Dibisen gaineko aukeren eragiketa hauen emaitzak sozietateari aldi horretan 6 milioi euroko galerak ekarri dizkio. Galera hauek Guggenheim Museoa Fundazioak egindako bi eragiketaren lagapena onartu izanak -1,5 milioi dolarrekoa bakoitza- eragindako galera besarkatzen dute, zeinak, lagapenaren unean sozietateari Fundazio horren alde 0,8 milioi euroko galera onartzea ekarri baitzion.

Epaitegiaren iritzira, dibisen gaineko eragiketa guztiak dolarren beharrezana eskatuko zuen artelanak erosteko eragiketarik lotuta izan gabe gauzatu ziren, une horretan dolarrak erostea aholkatuko zuen eta onetsitako Inbertsio plan eta egitasmoen arabera kopuru eta datetan etorkizuneko beharrezanaz aztertuko zituen aurretiazko azterlanik batere egin gabe.

Dibisetan egindako eragiketa guztiak Sozietatearen ahaldunak izenpetu zituen, Administrazio Kontseiluak banku eragiketetan sinatu eta jarduteko emandako ahalen indarrez.



Sozietatearen 2002 eta 2004 urteetako urteko kontuek ez dute ekitaldi horien itxieran indarrean zeuden dibisen gaineko aukera eragiketen kontratazioa islatu, harik eta horiek exekutatu ez diren arte. Honezaz gain, eragiketa mota honek eragindako 3,8 milioi euroko galerak oker kontuetaratu dira ibilgetuko kontuetan.

Epaitegiak ondorio hauek eta bere lanetik eratorritako beste batzuk Ondorioen atalean jaso ditu. Txostenak gainera, artelanak erosteko eragiketak, dolarrak erosteko hainbat motatako eragiketen analisisia eta moneta horretan egindako ordainketak ez ezik, eragiketa horiek eragindako galeren xehapena eta kontuetaratzean erabilitako irizpideak barne hartzen dituzten hainbat atal argigarri ere jaso ditu. Amaitzeko, idatzi honen lehenengo idatzi-zatian aipatutako Osokoaren bi kideek jaulkitako desadostasunezko boto partikularrak oso-osorik barne hartu dira.